

FUNTSEZKO JARDUERAK

Esan dugun bezala, ekintza ugari diseinatu ditugu eta egutegia pertsonen beharren arabera moldatu daiteke.

Ortua: Baserri etxea lehendik bere ortua duenez, aproposa iruditu zaigu aprobetxatzea eta gure ortua propioa sortzea (tomateak, letxugak, berakatza...)

Tailerrak: Plastilinarekin irudiak sortzeko tailerrak, xaboiak egiteko tailerrak, animaliekin egitekoak, ogia egiteko tailerrak baita naturarekin kontaktuan jartzeko tailerrak.



Txangoak: Baserri inguruan basoak daudenez, txango asko egin ditzakegu naturarekin kontaktuan jartzeko eta ezagutzeko.

Esan dugun bezala hainbat ekintza sortu ditugu, eta sortutako ekintza bat azalduko dugu:

Xaboi tailerrak: Glizerinaren bidez tamaina, forma, kolore eta usain desberdinetako artisau-xaboiak egingo dira. Molde desberdinak erabiliz aukeratu eta sortuko dute nahi dituzten

xaboiak imajinazioa landuz. Xaboiarekin lan egitean alderdi asko lantzen dira, adibidez, usaimena eta ukimena pertsona horren sormena garatuz.